



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko maiatzaren 16a

69. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Berriozarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Berriozarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 4an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Berriozarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena egin du, 2014ko ekitaldikoa.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Berriozarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina**

### **AURKIBIDEA**

**I.** Sarrera (3. or.).

**II.** Helburua (5. or.).

Norainokoa (5. or.).

**IV.** 2014ko kontu orokorrari buruzko iritzia (6. or.).

IV.1. Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorra (7. or.).

IV.2. Legezketasuna (7. or.).

IV.3. Udalaren 2014ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko-finantzarioa (7. or.).

IV.4. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea (10. or.).

IV.5. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetze-maila. (10. or.).

**V.** Udalaren 2014ko kontu orokorraren laburpena (11. or.).

V.1. 2014ko aurrekontuaren betetzeari buruzko egoera (11. or.).

V.2. 2014ko aurrekontu-emaizta (12. or.).

V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria 2014ko abenduaren 31n (12. or.).

V.4. 2014ko abenduaren 31ko egoera -balantzea (13. or.).

V.5. Galeren eta irabazien kontu bateratua 2014an (14. or.).

**VI.** Udalari eta haren menpeko enteei buruzko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (15. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (15. or.).

VI.2. Langileak (15. or.).

VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (17. or.).

VI.4. Transferentzien ondoriozko gastuak (17. or.).

VI.5. Inbertsioak (18. or.).

VI.6. Aurrekontuko diru-sarrerak (19. or.).

VI.7. Hirigintza (20. or.).

VI.8. Berrikilan S.L. sozietatea (21. or.).

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (23. or.).

Aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (23. or.).

**I. SARRERA**

Kontuen Ganberak, bere jarduera-programari jarraituz, Berriozarko Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Berriozarko udalerriak 2,71 km<sup>2</sup>-ko azalera du, eta 2014ko urtarrilaren 1ean, 9.625 biztanle dauzka.

Berriozarko Udalak ez du erakunde autonomorik.

2014ko ekitaldia ixtean, Udalaren funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak (2014)	Aitortutako eskubideak (2014)	Langileak, 2014-12-31n
Udala	6.193.419	6.050.629	101

Berrikilan, S.L. izeneko udal enpresa publikoa sortu da 2011ko abenduan, 3.300 euroko kapital sozialarekin. Haren hasierako xedea, 2012tik, Udalaren kirol instalazioak kudeatzea da. 2012an, enpresa publiko horri enkargatu zaio Udalaren zenbait lokal garbitzea. Enkargu hori 2013tik aurrera gauzatu da.

Ondoren sozietatearen funtsezko datuak adierazten dira.

Entitatea	Diru-sarrerak	Gastuak	Emitza	2014ko batez besteko langile kopurua
Berrikilan S.L.	1.095.088	1.082.841	12.247	20

Udala, gainera, honako hauetako kidea da:

- Iruñerriko Mankomunitatea: hark ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendua eta eskualdeko hiri-garraioari dagozkion zerbitzuak eta taxi-zerbitzuak.
- Antsoain, Berriozar, Itza eta Xulapaingo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, etxez etxeko laguntza, drogamenpekotasun-programak, harrera eta orientabide sozialaren zerbitzua, haurtzaroren eta familiaren zerbitzua, gizarteratzea eta lan munduan sartzeko zerbitzua, babestutako enplegu soziala eta herritar etorkinekiko ekintza-zerbitzuak emateko.

Mankomunitatean dituen zerbitzu hauek guztiek ondoko taulan erotan adierazten diren gastuak eragin dizkiote Udalari:

Zerbitzuak	Udalarentzako gastuak 2014an
Iruñerria	186.786
Gizarte zerbitzuak	180.794

Burlatan dagoen Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Bulegoan (EEZB) ere parte hartzen du.

Laburbilduta, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri dira.

Udal zerbitzuak	Udala	Mankomunitatea	Zerbitzu-kontratuak	Sozietate publikoa
Zerbitzu administratibo orokorrak	X			
Oinarrizko gizarte-zerbitzua		X		
Etxez etxeko laguntza-zerbitzua		X		
0-3 urteko haur-eskolak	X			
Musika eskola	X			
Hirigintza	X			
Lorategiak	X			
Hiri-hondakinak		X		
Uraren ziklo integrala		X		
Garraio publikoa		X		
Liburutegia-ludoteka	X			
Konsumitzaileen arreta zerbitzua			X	
Kaleen eta bideen mantentzea	X			
Kirolak	X			
Kirol-jardueren kudeaketa			X	
Udal kiroldegia				X
Babestutako enplegu soziala		X		
Diru-bilketa exekutiboa			X	

Toki entitateari 2014ko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoa funtsean honakoek osatzen dute: Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1995 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna ere.

Entitatearen aurrekontua 2013ko abenduaren 18an onetsi zuen Udalaren Osoko Bilkurak. 2015eko ekainaren 10eko Osoko Bilkurak 2014ko ekitaldiko kontu orokorra onetsi zuen.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, 2014ko kontu orokorraren inguruko gure iritzia agertzen da. Bosgarrenean, Udalaren finantzen egoera-orri nagusien laburpen bat. Azkenik, seigarren atalean, erakundearen antolaketa eta Udalaren barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorio eta aholkuak biltzen dira, arloz arlo.

Halaber, eranskin bat gehitu da Udalak 2014ko ekitaldiko kontuei buruz egindako oroitidazkia-rekin.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu Berriozarko Udaleko eta Berrikilan enpresa publikoko langileei.

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Berriozarko Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorraren arauzkotasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako puntu hauei buruzko gure iritzia/ondorioa agertzea:

- Ea Berriozarko Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza erakusten duen alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2014ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian egindako eragiketen emaitzei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraikiz.

- 2014an aurrera eramandako jarduerari aplikatzekoa zaion legeria zenbateraino bete den.
- Udalaren finantza-egoera 2014ko abenduaren 31n.
- 2014ko ekitaldirako aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuen betetzea, eskuragarri dagoen informazioari jarraituz.
- Ganbera honek 2013ko fiskalizazio-txostenean eman zituen gomendioak noraino aplikatu diren.

Txosten honetan, Udalak ezarritako barne-kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetzeko edota osatzeko egokitzen jo ditugun aholkuak ere gehitu ditugu.

## III. NORAINOKOA

Berriozarko Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorrak hauek ditu osagai nagusiak:

- Entitatearen beraren kontua: aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaitza, diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta emaitzen kontua.
- Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, zorraren egoera eta kontu-hartzaitzaren txostena.

Lana Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz gauzatu da; zehazki, honakoak aplikatu dira: "Fiskalizazio edo auditoria finantzarioaren oinarritzko printzipioak" izeneko ISSAI-ES 200 araua eta "Betetzeari buruzko fiskalizazio- edo auditoria-printzipio nagusiak" izeneko ISSAI-ES 400 araua. Inguruabarren eta azterlanaren helburuen arabera, beharrezkotzat jo ditugun hautapropa edo prozedura tekniko guztiak aplikatu ditugu; prozedura horien artean laginen teknika edo kontusail edo eragiketa jakin hautatuak aztertzeke teknika erabili dira.

Zehazki, aurrekontuen eta finantza egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikatutako oinarritzko prozedura administratiboak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne kontrolako alderdi nabarmenenak.

Berrikilan sozietate publikoari dagokionez, sozietateak egindako balantzea eta emaitzen kontua aurkezten ditugu, eta iruzkin batzuk egin ditugu sozietateari buruzko alderdi garrantzitsueni buruz.

#### **IV. 2014ko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA**

Berriozarko Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu dugu. Haien kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako V. atalean.

##### *Udalaren erantzukizuna*

Alkatea da kontu orokorrak aurkezteko ardura duena. Halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatuko baitituzte Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzepzioa, ezarpena eta mantentzea.

Udalak, gainera, bermatu beharko du finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela indarreko araudiarekin.

##### *Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna*

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako kontu orokorren fidagarritasunari buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz. Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontrolako Erakunde publikoen fiskalizazioarako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek exijitzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburuarekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbatekoei eta kontu orokorretan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezkotasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta kontu orokorren aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure fiskalizazio-iritzia emateko.

Finantzen eta legezkotasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren emaitzatik honako aldeko iritzia eratortzen da.

## IV.1. UDALAREN 2014ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA

*Iritzia*

Gure iritiz, Udalaren erantsitako urteko kontuak, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten du, Udalaren ondareari eta finantza-egoerari dagokienez 2014ko abenduaren 31n, bai eta data horretan amaitutako ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzarioari buruzko arau-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuen inguruko printzipio eta irizpideei jarraituz.

## IV.2. LEGEZKOTASUNA

Egindako lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke 2014ko ekitaldian Udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezkotasun printzipioari jarraituz egin dela.

## IV.3. UDALAREN 2014ko ABENDUAREN 31ko EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Udalaren hasierako aurrekontuak 5,69 milioiko gastu eta diru-sarrerak dauzka; zenbateko hori ehuneko 22 –hau da, 1,24 milioi– handitu da aurrekontu-aldaketan bitartez: horrenbestez, behin betiko aurreikuspenak 6,93 milioikoak dira. Aldaketa horiek inbertsioen eta beren finantzaketaren atalean dute batez ere eragina.

Aitortutako betebeharrak 6,19 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 89ko betetze-maila izan dute. Transferentzien kapituluak, aurrekontuko ehuneko 66ko betetzearekin, eta inbertsioen kapituluak, ehuneko 75ekoarekin, azaltzen dute betetzearen portzentaje orokorra.

Aitortutako eskubideak 6,05 milioi eurokoak dira, eta ehuneko 87ko betetze-maila izan dute; erantsi den diruzaintza-gerakina behin betiko aurreikuspenetatik kanpo uzten bada, ordea, ehuneko 97ko betetze-maila ateratzen da.

Gastuen izaerari begiratuz gero, gastu arruntek eta inbertsioek gastu guztien ehuneko 90 eta ehuneko 10 osatzen dute, hurrenez hurren. Diru-sarrera arruntak diru-sarrera guztien ehuneko 96 dira; diru-sarrera horien ehuneko 51 jasotako transferentzietatik datoz.

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu den Udalaren gastuen 100 euroko bakoitza:

Gastuaren izaera	Kopurua	Finantzabidea	Kopurua
Langileak	52	Tributu bidezko diru-sarrerak	48
Bestelako gastu arruntak	37	Transferentziak	51
Kapital-eragiketak	11	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	1
Finantza-zama	0	Zorduntzea	0
Guztira	100		100

Hona Udalaren 2014rako aurrekontuaren betetzeari eta betetze horrek 2013tik izan duen bila-kaerari buruzko datu ekonomikoak:

	2013	2014	Aldearen %, - 2014/2013
Aitortutako betebeharrak, guztira	6.514.713	6.193.419	-5
Betebehar ez-finantzarioak (1. kapitulutik 7.era)	6.514.713	6.193.419	-5
Kitatutako eskubideak, guztira	6.337.135	6.050.629	-5
Eskubide ez-finantzarioak (1. kapitulutik 7.era)	6.337.135	6.050.629	-5
Gastuen betetzea (%)	87	89	
Diru-sarrerren betetzea (%)	85	87	
Ordainketak (%)	94	93	
Kobratutakoa, %	92	91	
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	5.789.166	5.507.331	-5
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	5.788.573	5.507.154	-5
Inbertsioetan egindako gastuak (6. eta 7. kapituluak)	725.547	686.089	-5
Finantza-eragiketetan egindako gastuak (8 eta 9)	0	0	0
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	6.208.633	5.815.780	-6
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	3.198.973	2.884.110	-10
Kapitalaren eta Finantza-eragiketen bidezko diru-sarrerak (6. kapitulutik 9.era)	128.501	234.848	83
Diru-laguntzen menpekotasunak (%)	48	51	
Tributu bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (%)	55	52	
Saldo ez-finantzarioa	-177.579	-142.790	-20
Aurrekontu-emaizta doitua	499.841	395.290	-21
Aurrezki gordina	420.060	308.450	-27
Finantza-zama (3.etik 9.era)	593	177	-70
Aurrezki garbia	419.467	308.273	-27
Zorpetze maila (%)	0,01	0	0
Zorpetze muga (%)	6,77	5,30	
Zorpetze-ahalmena (%)	6,76	5,30	
Diruzaintza-gerakina, guztira	3.906.376	3.651.895	-7
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.104.593	1.321.049	20
Zor bizia	0	0	
Finantza-zama / Diru-sarrera arruntak	0	0	

2014an, Udalak aurreko ekitaldian baino ehuneko 5 gutxiago gastatu du eta aurreko ekitaldian baino ehuneko 5 gutxiagoko diru-sarrerak izan ditu. Gastuen beherakada hori homogeneoa da kapitulu guztietan.

Gastu arruntetan, berriz, ehuneko bosteko beherapena izan da; diru-sarrera arruntek, aldiz, ehuneko sei egin dute behera.

Aurrekontuko saldo ez-finantzarioaren balio negatiboa jaitsi egin da, 2013an 0,18 milioikoa izatetik 2014an 0,14 milioikoa izatera igaro baita; horrek adierazten du diru-sarrera ez-finantzarioak ez direla izan izaera bereko gastuak finantzatzeko behar adinakoak.

Aurrekontu-emaizta doitua 395.290 eurokoa da; aurreko urtean, berriz, 499.841 eurokoa izan zen.

2014an, bai aurrezki gordina, bai aurrezki garbia positiboak izan dira, zeren eta zorpetzea 2012an kitatu baitzen.

Aipatu dugun bezala, Udalak zorpetzerik ez dauka, eta ehuneko 5,30eko muga du; horregatik, hain zuzen, badu zorpetze berria hartzeko ahalmen ekonomikoa.



Balantzeko maileguen atalaren zenbatekoa 1996an jasotako aurrerakin bati dagokio.

Diruzaintza-gerakina, guztira, 3,65 milioikoa da, eta ehuneko zazpi egin du behera 2013koaren aldean. Gastu arruntetara bideratutakoa ehuneko 16 igo da; izan ere, 2013an 1,1 milioikoa izatetik 2014an 1,3 milioikoa izatera pasa da.

Laburbilduz, 2013tik 2014ra, saldo ez finantzarioak ehuneko 20 egin du hobera, nahiz eta oraindik ere negatiboa izaten jarraitzen duen; baina, aurrekontu-emaizta doituak, aurrezki gordinak eta aurrezki garbiak positiboak izaten jarraitzen dute 2014an eta 2013an, eta zorpetzerik ez dago. Hala eta guztiz ere, oroitidazkian esaten da aurrezki gordina igotzeko beharra dagoela, kapitaleko gastu berriei ekiteko.

Berriozarko Udalak 2006-2014 aldian honako bilakaera izan du diru-sarreretan eta gastuetan:

#### Diru-sarrerak (aitortutako eskubide garbiak)

Kapitulua	Izena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
1	Zuzeneko zergak	1.759.133	1.687.925	1.806.201	1.769.062	1.791.732	1.845.870	2.011.021	2.278.777	2.105.804
2	Zeharkako zergak	193.365	822.666	1.133.424	1.262.131	419.326	544.407	205.780	45.130	48.923
3	Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerak batzuk	759.370	968.006	1.143.961	1.218.027	1.592.549	886.700	920.748	875.066	729.383
4	Transferentzia arruntak	2.479.356	2.709.722	3.027.244	3.100.666	3.132.563	2.826.082	2.700.965	2.899.140	2.839.493
5	Ondareko diru-sarrerak eta herri-lurren aprobetxamendua	48.224	82.182	680.612	407.247	223.300	286.876	221.459	110.520	92.177
6	Inbertsio errealek besterentzea	2.599	16.978.243	0	0	209.127	0	0	0	0
7	Entitateari egindako transferentziak	12.621	879.326	927.358	1.926.590	1.585.317	684.241	549.976	128.501	234.849
8	Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	0	0	0
9	Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0	0	0	0
	<b>Guztira</b>	<b>5.254.668</b>	<b>24.128.070</b>	<b>8.718.800</b>	<b>9.683.723</b>	<b>8.953.914</b>	<b>7.074.176</b>	<b>6.609.949</b>	<b>6.337.134</b>	<b>6.050.629</b>

#### Gastuak (aitortutako betebeharrak)

Kapitulua	Izena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
1	Langile-gastuak	2.440.086	2.493.521	3.119.119	3.662.217	3.609.058	3.656.161	3.525.957	3.348.273	3.222.671
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	1.829.476	2.031.989	2.174.357	1.924.589	1.936.455	1.960.986	1.801.353	1.659.060	1.520.598
3	Finantza-gastuak	40.301	55.989	975	460	13.220	13.223	12.083	593	177
4	Transferentzia arruntak	639.210	713.857	630.140	928.442	716.134	698.322	770.434	781.240	763.885
6	Inbertsio errealek	714.331	1.458.793	3.663.033	6.708.295	2.769.332	3.421.001	3.484.528	675.547	631.089
7	Kapital-transferentziak	0	0	135.576	127.438	115.365	32.161	43.784	50.000	54.999
8	Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	5.100	0	0	0
9	Finantza-pasiboak	74.321	74.321	74.321	74.321	74.321	74.321	966.174	0	0
	<b>Guztira</b>	<b>5.737.725</b>	<b>6.828.470</b>	<b>9.797.521</b>	<b>13.425.762</b>	<b>9.233.885</b>	<b>9.861.275</b>	<b>10.604.313</b>	<b>6.514.713</b>	<b>6.193.419</b>

Datu hauetatik ondorioztatzen denez, 2007an lortutako aparteko diru-sarrerak balio izan dute 2008tik 2012ra gastuen eta diru-sareren artean egon den aldea finantzatzeko, eta urte horretatik aurrera, orduan amortizatu baitzen zorra, inbertsioen beherakada nabarmena dago, eta gastu arruntek ere behera egin dute. Hori dela eta, 2014an aurrezki gordina eta garbi positiboak dauzka.

Udalak aurrera eraman duen jardueraren bilakaera honako adierazle hauen alderaketatik ondorioztatzen da 2011tik 2014ra.

Adierazlea	2011	2014	Aldea (%), 2014/2011
Zorpetze ahalmena	% -0,20	% 5,30	-
Biztanle bakoitzeko inbertsioa	386 €	71 €	-82
Gastu arruntak / biztanleko	706 €	572 €	-19
Tributu diru-sarrerak biztanleko	367 €	300 €	-18

Ikus daitekeen bezala, inbertsioen jaitsiera aipagarria gertatu da, eta zorpetze-gaitasuna izatera iritsi da.

Azken batean, honako hauek dira Udalaren ezaugarriak: aurrezki garbi positiboa du, eta zorpetze ahalmena; Udalaren gastu orokorretarako diruzaintza gerakina 1,3 milioi eurokoa da; gastu arruntak beheratu ditu, nahiz eta azken bi urte hauetan bere gastu-beharrizanak diruzaintza-gerakina aplikatuz finantzatzen duen.

#### IV.4 AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA

Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa noraino bete den aztertu da, Nafarroako Gobernuak 2014ko maiatzean horretarako eman duen gidaz baliatuta. Hurrengo taulan ematen dugu horren emaitza:

Kontzeptua	Kopurua
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	-142.790
Doikuntzak	-80.362
Finantzaketa-beharrak	-223.152

Ikusi da Berriozarko Udalak ez duela betetzen finantza-egonkortasunaren baldintza, baina bai gastuaren araua, zeren eta egoztekoa den gastua txikiagoa baita ezarritako muga baino (2013an, ehuneko 1,5 egin zuen gora); halaber, finantza-iraunkortasunaren printzipioa betetzen du, zeren eta ez baitu zorrik.

Oro har, Udalak betetzen ditu legedia indardunean hornitzaileei ordainketak egiteko ezarritako epeak.

Egonkortasunaren ez-betetze hori zuzendu egin da plan ekonomiko-finantzario bat eginez; plan hori diruzaintza-gerakina aplikatzean datza.

#### IV.5. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZE-MAILA.

Oro har, 2013ko txostenean jasotako aholku nagusiak kontuan hartu dira; aurrekontuak, ku-deaketarako oinarritzko lanabesa izan daitezen, legediak ezarritako epean onetsi dira.

**V. UDALAREN 2014ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA**

Ondoren azaltzen dira 2014ko kontabilitatearen egoera-orri garrantzitsuenak:

**V.1. 2014ko AURREKONTUAREN BETETZEARI BURUZKO EGOERAORRIA**

## Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Ordaintzeko dagoena (%)
1. Langile-gastuak	3.253.289	40.738	3.294.027	3.222.671	98	3.176.695	45.976	1
2. Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	1.622.967	-33.821	1.589.146	1.520.598	96	1.378.094	142.504	9
3. Finantza-gastuak	1.200	-110	1.090	177	16	177	0	0
4. Transferentzia arruntak	804.689	346.432	1.151.121	763.885	66	624.274	139.611	18
6. Inbertsio errealak	8.000,00	829.193	837.193	631.088	75	550.312	80.956	13
7. Kapital-transferentziak	0	55.000	55.000	54.999	100	30.963	24.036	44
8. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0	0	0
<b>Guztira</b>	<b>5.690.145</b>	<b>1.237.432</b>	<b>6.927.577</b>	<b>6.193.419</b>	<b>89</b>	<b>5.760.515</b>	<b>432.904</b>	<b>7</b>

## Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Kobrantsak	Kobratzeko dagoena	Kobratzeko dagoena (%)
1. Zuzeneko zergak	2.072.412	0	2.072.412	2.105.804	102	1.839.052	266.752	13
2. Zeharkako zergak	49.000	0	49.000	48.923	100	49.375	0	0
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	733.006	355.226	1.088.232	729.383	67	626.547	102.836	14
4. Transferentzia arruntak	2.773.407	0	2.773.407	2.839.493	102	2.838.157	1.336	0
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	62.320	0	62.320	92.177	148	71.935	20.242	22
6. Inbertsio errealen besterentzea	0	0	0	0	0	0	0	0
7. Kapital-transferentziak	0	183.581	183.581	234.848	124	100.657	134.191	57
8. Finantza-aktiboak	0	698.625	698.625	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0	0	0
<b>Guztira</b>	<b>5.690.145</b>	<b>1.237.432</b>	<b>6.927.577</b>	<b>6.050.629</b>	<b>87</b>	<b>5.525.723</b>	<b>524.906</b>	<b>9</b>

## V.2. 2014ko AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptua	2013	2014
+ Aitortutako eskubideak	6.637.135	6.050.629
- Aitortutako betebeharrak	6.514.713	6.193.419
= Aurrekontu-emaiza	-177.579	-142.789
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	0	85.808
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	0	0
+ Diruzaintza-gerakin likidoarekin finantzatutako gastuak - Erantsitakoa	0	0
+ Ekitaldiko diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	677.419	623.888
= Aurrekontu-emaiza doitua	499.841	395.290

## V.3. DIRUZAINZTA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2014ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2013	2014
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	789.838	890.265,40
(+) Diru-sarrerak: Aurtengo ekitaldia	519.055	678.026,00
(+) Diru-sarrerak: Itxitako ekitaldiak	1.070.820	1.151.878
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	142.053	89.687
(+) Ordainketen itzulketa	25	25
(-) Bilketa zaileko eskubideak	875.727	965.076
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	66.387	64.274
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	562.815	637.491
(+) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	380.337	441.193
(+) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	21.834	24.860
(+) Diru-sarreren itzulketak	456	10.020
(-) Aplikatzeko dauden gastuak	25.451	26.117
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	185.639	187.535
(+) Diruzaintzako funts likidoak	3.679.353	3.399.121
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	0	
= Diruzaintza-gerakina, guztira	3.906.376	3.651.895
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	0	85.808
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	2.801.783	22.245.038
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.104.593	1.321.049

## V.4. 2014ko ABENDUAREN 31ko EGOERA -BALANTZEA

## Aktiboa

Deskribapena	2013	2014
A. Ibilgetua	28.610.758	28.177.703
1. Ibilgetu materiala	28.393.274	27.957.330
2. Ibilgetu ez-materiala	210.281	213.169
3. Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	0	0,00
4. Herri-ondasunak	0	0,00
5. Finantza-ibilgetua	7.204	7.204
C. Zirkulatuzailea	5.464.800	5.194.566
8. Zordunak	751.948	954.540
9. Finantza-kontuak	3.704.804	3.425.238
10. Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (galera)	1.008.048	814.788
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>34.075.559</b>	<b>33.372.269</b>

## Pasiboa

Deskribapena	2013	2014
A. Funts berekiak	32.908.971	32.132.452
1. Ondarea eta erreserbak	20.026.941	19.015.573
2. Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	0	0
3. Kapitaleko diru-laguntzak	12.882.030	13.116.879
C. Epe luzeko hartzekodunak	480.810	480.810
4. Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	480.810	480.810
D. Epe laburreko hartzekodunak	685.778	759.007
5. Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak	588.266	663.608
6. Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	97.512	95.400
<b>Pasiboa, guztira</b>	<b>34.075.559</b>	<b>33.372.269</b>

## V.5. GALEREN ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA 2014an

## Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2013	2014	Deskribapena	2013	2014
3 Hasierako izakinak			3 Amaierako erosketak		
39 Izakinen balio-galtzeen hornidura			39 Izakinen balio-galtzeen hornidura		
60 Erosketak			70 Salmentak	574.239	445.950
61 Langile-gastuak	3.357.984	3.229.089	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	347.267	337.767
62 Finantza-gastuak	593	177	72 Ekoizpenarekin eta inportazioarekin lotutako tributuak	1.593.931	1.637.038
63 Tributuak	5.770	110	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	452.741	451.267
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	1.643.579	1.514.071			
65 Gizarte prestazioak			75 Ustiapenerako diru-laguntzak		7.324
66 Ustiapenerako diru-laguntzak			76 Transferentzia arruntak	2.899.140	2.839.493
67 Transferentzia arruntak	781.240	763.885	77 Kapitalaren gaineko zergak	277.235	66.423
68 Kapital-transferentziak	50.000	54.999	78 Bestelako diru-sarrerak	64.082	30.519
69 Amortizazio eta horniduretarako zuzkidurak	2.135.654	2.025.901	79 Beren helbururako aplikatutako hornikuntzak	778.901	980.005
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (Saldo hartzekoduna)			Ekitaldiko emaitza arrunta (Saldo zorduna)	987.286	792.446
Guztira	7.974.820	7.588.231	Guztira	7.974.820	7.588.231

## Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2013	2014	Deskribapena	2013	2014
80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna)	987.286	792.446	80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)		
82 Ezohiko emaitzak (saldo zorduna)		4.481	82 Ezohiko emaitzak (saldo hartzekoduna)	45	
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)		0,00	83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)		
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo zorduna)	20.808	17.861	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna)		
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)		0,00	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	1.008.048	814.788
Guztira	1.008.093	814.788	Guztira	1.008.093	814.788

## VI. UDALARI ETA HAREN MENPEKO ENTEEI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondoren, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz Udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko gomendio eta iruzkin nagusiak emanen ditugu.

### VI.1. ALDERDI OROKORRAK

- 2014ko aurrekontua 2014ko abenduaren 18an onetsi zuen hasiera batez Udalaren Osoko Bilkurak.

- Ez da aurkitu nabarmentzeko moduko zenbatekoa duen 2014ko fakturarik, 2015eko aurrekontuari egotzi zaionik.

- Udalak 2014an hornitzaileei ordaintzeko erabili duen epeari buruzko azterketa eginik, ondorioztatzen da ezen, aztertutako laginari erreparatuta, arau indardunetan ezarritakoa betetzen ari dela, oro har. Ez da berandutza-interesik ordaindu hornitzaileei egindako ordainketengatik.

- Udalak aurkeztu duen oroitidazkian zerbitzuen kostuaren azterketa egiten da, eta tasa, prezio publiko eta diru-laguntzen bitartez kostu hori zenbateraino estali den azaltzen da.

- Jasotako informazioaren arabera, auzi hauek azpimarratu behar ditugu:

a) "P.O. 57/2013" Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Estatuko Abokatzak aurkeztua, 2012ko abenduko aparteko soldata dela-eta. Prozesua etenik dago, uztailaren 15eko 12/2012 Errege Lege-dekretuaren aurka Nafarroako Parlamentuak aurkeztua duen konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsoa ebatzi arte.

b) 592/2013 zenbakiko prozedura arrunta, Berriozarko Udalak aurkeztua. Nafarroako Gobernuko Barne zuzendari nagusiaren apirilaren 16ko 2272/2009 zenbakiko ebazpena deuseza deklaratzeko egindako eskaria administrazioaren isiltasunaren bidez ustez ezetsi izatearen aurkakoa da; izan ere, ebazpen haren bidez, Berriozarko kidegoko udaltzain izateko bi lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdia onetsi zen.

c) 272/2013 prozedura, enpresa esleipen-hartzaileak Berriozarko Udalaren aurka aurkeztutakoa. Epaiak eskatzen du obraren likidazioa atzera eraman dadila neurrak erortzea egin zen unera arte; horrek berarekin ekarri du udaletxeko eraikinaren obra zuzentzeaz arduratu zen enpresak eta kulturaguneak (kultur etxea) obra berriz ere neurtu behar izatea; neurrak hori 2015eko ekainean egin zen. Erreklamazioa 788.641 eurokoa da.

### VI.2. LANGILEAK

Langileen gastua 3,22 milioi eurokoa da; hau da, 2014an sortutako gastu guztien ehuneko 52 eta gastu arrunten ehuneko 55.

2013ko ekitaldiari dagokionez, kapitulu hau ehuneko lau jaitsi da, honako xehetasunen arabera:

	Aitortutako betebeharrak		Ehuneko Aldea
	2013	2014	
Goi-karguak	854	700	-18
Behin-behineko langileak.	59.632	86.367	45
Funtzionarioak	1.340.420	1.095.984	-18
Lan-kontratadun finkoak	415.394	870.390	10
Aldi baterako lan-kontratadunak	541.636	246.879	-54
Gizarte-zamak	990.337	922.350	-7
<b>1. kapituluak, guztira</b>	<b>3.348.273</b>	<b>3.222.671</b>	<b>-4</b>

Udalaren Osoko Bilkurak 2014ko otsailaren 27an onetsi zuen 2012ko plantilla organikoa. Bertan, 81 lanpostu daude jasota, eta horietatik 43 lanpostu, ehuneko 53, bete gabe daude. Hona xehetasunak:

	Lanpostu-kopurua	Aktiboa	Lanpostu hutsak	Betetako lanpostu hutsak
Funtzionarioak	51	32	19	13
Lan-kontratudun finkoak	28	4	24	23
Behin-behineko langileak.	2	2	0	0
<b>Guztira</b>	<b>81</b>	<b>38</b>	<b>43</b>	<b>36</b>

2014ko abenduaren 31n, Udalean 101 pertsonak egiten dute lan guztira. Hona xehetasunak:

Langileak	Kopurua Udalean
Udalbatzako kideak	1
Funtzionarioak	32
Kontratu administratiboa dutenak	13
Lan-kontratudun finkoak	4
Lan-kontratu mugagabea duten langileak	25
Aldi baterako lan-kontratudunak	26
<b>Guztira</b>	<b>101</b>

Udaleko langileak arlo hauei atxikita daude:

Arloak	Kopurua
Udalbatzako kideak	1
Idazkaritza	2
Giza baliabideak	1
Jendeari arreta ematea	3
Polizia	14
Haur Eskola	16
Ikastetxea	2
Ekonomia-gaiak	4
Garbiketa	4
Hirigintza	3
Lorategiak	6
Obrak	7
Musika eskola	12
Euskara	1
Kultura	2
Gazteria	1
Berdintasuna	1
Kirola	1
<b>Guztira</b>	<b>81</b>

Azpimarratu behar dugu Udaltzaingoko, haur eskolako eta musika eskolako langileak direla Udaleko langile guztien ehuneko 52.

Langile-gastuen lagin bat aztertuta, honako ondorioak atera ditugu: oro har, langile-gastuak behar bezala kontabilizatuta daude; ordaindu diren lansariak betetako lanposturako erabakita-koak dira; ordainsari horiek 2014an izoztu dira, eta egindako atxikipek zuzenak dira. Halaber, 2014an egin diren kontratu berri batzuk aztertu ditugu, eta zuzen izapidetu direla egiaztatu dugu.



## VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuek 1,52 milioi euro egin dute 2014ko ekitaldian; guztira, ekitaldian aitortutako gastuen ehuneko 25 eta eragiketa arrunten gastuen ehuneko 27 egiten dute. 2013. urtearen aldean, ehuneko zortzi jaitsi dira.

Kapitulu honi egotzitako kontratazio-espeditente hau berrikusi da (zenbatekoak BEZik gabe):

Deskribapena	Kontratu mota	Esleipen prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak	Esleipenaren zenbatekoa
Berriozarko Udalerako eta Musika Eskorako garbiketaren zerbitzua	Bertaratzea	Negoziatua	55.000	2	54.600

Espeditente honi eta kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin bati buruz egindako azterketaren ondorioz, gastu horiek behar diren fakturekin justifikatuta daudela, egoki kontabilizatu direla eta aplikatzekoa den araudia arazoiz errespetatu dela egiaztatzen da.

## VI.4. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Horrelako gastuek 0,76 milioi egin dute, eta 2013an sortutako gastu guztien ehuneko 12 dira. 2013. urtearen aldean, gastu horiek ehuneko bi igo dira.

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%)
	2013	2014	2013/2014
Foru Komunitateko Administrazio Orokorrari	28.259	14.259	-50
Mankomunitateei	338.200	367.580	9
Familiei	59.797	55.438	-7
Irabazi-asmorik gabeko erakundeei	95.856	46.382	-52
Beste transferentzia batzuk	259.128	280.225	8
4. Transferentzia arruntak	781.240	763.885	-2
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	50.000	54.999	10
7. Kapital-transferentziak	50.000	54.999	10

Honakoak dira 2014an emandako diru-laguntza garrantzitsuenak.

Onuraduna	Kopurua
Eskualdeko garraioa	186.786
Gizarte zerbitzuak	180.794
Berriozar kirol elkartearekiko hitzarmena	24.425
Mendialdea Kirol Elkartea	28.640
Auzokidea Laguntzeko Elkartea	35.000

Udalak badu diru-laguntzak emateko ordenantza orokorra, 2012ko martxoan behin betiko onetsia. Etxebizitzak zaharberritzeko diru-laguntzak ordenantza horretatik kanpo daude, berriazko ordenantza batean arautu baitira.

Egindako azterketatik ondorioztatzen da gastu horien kudeaketa egokia izan dela, oro har.

## VI.5. INBERTSIOAK

2014. urterako behin betiko aurrekontuan aurreikusitako inbertsioen (0,83 milioi) ehuneko 75 bete da, eta 0,63 milioira iritsi da; hain zuzen ere, ekitaldiko betebeharrak guztien ehuneko 10.

2013rekin alderatuta, inbertsioek ehuneko 7 –hau da, 44.458 euro– egin dute behera.

Honakoak izan dira 2014an egindako inbertsio nagusiak (BEZik gabeko zenbatekoak).

Inbertsioa	Kopurua
Ikastetxea husteko sistemarako obrak	26.474
Mendialdea ikastetxe publikoaren transformazio gunea	27.292
Gazteguneko obrak	512.526
Eraikinen zaharberritzea	54.999

2014an esleitutako honako espedienteak aztertu ditugu (zenbatekoak BEZik gabe):

Deskribapena	Kontratu mota	Esleipen prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak	Esleipenaren zenbatekoa
Gazte-zentroaren behe tentsioko instalazioa	Obra	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	14.076	5	9.717
Gazte-zentroa egiteko obrako barruko arotzeria	Obra	Publizitaterik gabe negoziatua	15.240	2	15.240
Gazte-zentroko kanpoko itxitura, zurez eta beiraz egindakoa	Obra	Publizitaterik gabe negoziatua	33.976	2	33.390

Egindako azterketan oinarrituta egiaztatu da bete egiten dela kontratuei buruzko legedia –alderdi nagusietan–, bai kontratazio-espedienteak izapidetzean, bai haiek esleitzean eta betetzean, eta kontabilizatutako gastuak arrazoizkoak direla.

## VI.6. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2014ko ekitaldian aitortutako eskubideak 6,05 milioioak izan dira; ehuneko 96 eragiketa arruntengatiko diru-sarrerari dagozkie eta ehuneko lau, berriz, kapital-eragiketei.

Eragiketa arrunten artean tributu bidezko diru-sarrerak -2,88 milioi euro– eta transferentzia arruntak -2,84 milioi euro– nabarmentzen dira.

Diru-sareren aurrekontuaren gauzate-maila ehuneko 87koa izan da.

Udalak ez du nabarmentzeko moduko diru-sarrerarik jaso 2014ko hirigintza-eragiketen ondorioz.

2013. urtearen aldean, aitortutako eskubideak ehuneko bost murriztu dira. Hona zehatz-mehatz:

Diru-sarrerak	Aitortutako eskubide garbiak		Aldea (%)
	2013	2014	2014/2013
1. Zuzeneko zergak	2.278.777	2.105.804	-8
2. Zeharkako zergak	45.130	48.923	8
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	875.066	729.383	-17
4. Transferentzia arruntak	2.899.140	2.839.493	-2
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	110.520	92.177	-17
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	6.208.633	5.815.780	-6
6. Inbertsioen besterentzea	0	0	
7. Kapital-transferentziak	128.501	234.848	83
8. Finantza-aktiboak	0	0	
9. Finantza-pasiboak	0	0	
Kapitaleko diru-sarrerak eta finantza-eragiketak (6tik 9ra)	128.501	234.848	83
<b>Diru-sarrerak, guztira</b>	<b>6.337.135</b>	<b>6.050.629</b>	<b>-5</b>

Nabarmentzekoa da zuzeneko zergak, tasek eta ondare bidezko diru-sarrek behera egin dutela.

Ondorengo taulan, udal zerga bakoitzaren arabera aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da:

Diru-sareren kapituluak	Aitortutako eskubideak		Aldea (%)
	2013	2014	2014/2013
Lurraren kontribuzioa	1.374.019	1.398.109	2
Ibilgailuak	452.741	451.267	0
Lurren balio-gehikuntza	277.235	66.422	-76
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	174.782	190.004	9
EIOZa	45.130	48.923	8
<b>Guztira</b>	<b>2.323.907</b>	<b>2.154.725</b>	<b>-7</b>

Antzematen diren alde nagusiak dira lursailen balioari dagokiona, zeinak 2014ko ekitaldian ehuneko 76 egin baitu behera, eta EIOZari eta JEZari dagokiena, zeinek 2014ko ekitaldian ehuneko 9 eta 8 egin baitute gora, hurrenez hurren.

Udalak aplikatutako tasak eta Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak jasotzen direnak alderatu ditugu, eta honakoak ikus daitezke taula honetan:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,2214	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,4	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza		
Gaurkotzearen koefizientea	3,1etik 3,3ra	2tik 3,8ra
Zerga-tasa	8,17	8 - 20 bitartean
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	5	2 - 5

Tasa horiek izoztu egin dira 2013. urtearekin alderatuta.

Diru-sarrereren behin betiko aurrekontuko kontusailen lagin baten gainean egindako azterketaren bitartez, egokiro izapidetu eta kontabilizatu direla egiaztatu dugu.

## VI.7. HIRIGINTZA

Berriozarko Udalak bere baliabideen bitartez egiten ditu hirigintzako lanak, Hirigintza Alorra izeneko organo baten bitartez; organo horretan diharduten pertsonak hauek dira: arkitekto bat, arkitekto tekniko bat eta ofizial administrari bat.

Gainera, Udalak badu kanpoko aholkularitza juridikoa hirigintzaren arloan, abokatu batek ematen diona. Horrek 12.000 euroko gastua ekarri du 2014an.

1991ko maiatzaren 8an onetsitako arau subsidiarioak dira Berriozarko planeamendu-tresna. 20 urte baino gehiago iraganda, ia erabat beteta daude arau horietan aurreikusitako hirigintza-helburuak.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea finkatzen zuen, 2006ko apirilera artekoa, indarreko plangintzak homologatu eta egokitzeko. Foru lege horretako estipulazioak betetze aldera, Udalak 2005eko uztailean esleitu zituen Udal Plan Orokorra idazteko laguntza teknikoko lanak.

Lurraren Erabilerarako Estrategia eta Eredua (LEEE), udal plan orokorreko lehen dokumentu gisa idatzita dagoena, 2006ko otsailean onetsi zen. Plan berria idazteko lanak 2007an esleitu ziren, eta txosten hau idazteko datan amaitu gabe daude. Honako hau dio oroitidazkiak:

*“...hirigintza plan orokorra ezin da amaitu, Defentsa Ministerioak kuartela babesteko bandaren hirigintza diseinua finkatu gabe baitauka.*

Ganbera honek nabarmendu nahi du luze jotzen ari dela hirigintza-planeamendu berria taxutu eta onesteko prozesua, nahiz eta tresna hori funtsezkoa izan udal plangintza eta kudeaketa ego-kietarako.

Udalak badu Lurzoruaren Udal Ondarearen inbentario eta erregistro espezifiko bat, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legeak agindu bezala; haren osaera zehatz-mehatz azaltzen da Udalaren oroitidazkian. Halaber, Udalak hirigintza-hitzarmenen erregistroa kudeatzen du.

*Udal Plan berria idazteko prozesua behingoz bukatzea gomendatzen dugu.*

## VI.8. BERRIKILAN S.L. SOZIETATEA

2011n sortu zen, baina 2012an hasi da jarduten. 2012ko urtarrilean enkargatu zitzaion Berriozarko Udalaren kirol zerbitzuen prestazioa kudeatzea; aurrez, zeharkako kudeaketaren bidez ematen ziren zerbitzu horiek.

Horretarako, Berriozarko kirol eremuko instalazioak hamar urterako errentan eman zitzaizkion. 2014an ordaindu beharreko kopurua 12.301 euro da, gehi dagokion BEZa.

2012an, Udalaren lokalak garbitzeko lanak enkargatu zitzaizkion. 2013ko irailean hasi da lan hori, eta urte berean, hain zuzen, Mendialdea ikastetxe publikoaren garbiketa ere enkargatu zaio.

Sozietateak 12.247 euroko etekina lortu du.

Horri dagokionez, nabarmendu behar da Udalak kalkulatu duela kirol eremuaren amortizazioaren kopurua 200.000 euro baino gehixeago izanzen dela.

Kirol instalazioen kudeaketari dagokionez –udal enpresa publikoari zerbitzuaren kudeaketa enkargatzen zaio eta instalazioak errentan ematen zaizkio, kanon baten truke–, beharrezkotzat jotzen dugu kudeaketa horren esparru juridikoa argitzea, modu zehatzagoan erregulatuz egindako enkarguaren araubide ekonomiko-finantzarioa eta errentamenduaren figuraren erabilera saihestuz, zerbitzu publiko baten zeharkako kudeaketarako modu gisa, Nafarroako Kontratazio Publikoaren Batzarrak 1/2010 txostenean adierazitakoaren ildotik.

Hona sozietatearen balantzea eta emaitzen kontua abenduaren 31n.

## Galeren eta irabazien kontua 2014ko abenduaren 31n

Deskribapena	2014ko ekitaldia
1 Negozio-zifraren zenbateko garbia	1.054.088
4 miduretarako ekarpena	-95.047
6 Langile-gastuak	-650.662
7 Ustiaketaren bestelako gastuak	-282.232
10 Hornidurak: Kaudimen gabeziak	-7.947
12 Beste emaitza batzuk	-3.080
A Ustiaketaren emaitzak	15.030
C Zerga aurreko emaitza	15.030
17 Mozkinen gaineko zerga	-2.873
<b>Ekitaldiko emaitzak</b>	<b>12.247</b>

## Egoera-balantzea 2014ko abenduaren 31n

## Aktiboa

Deskribapena	2014ko ekitaldia
<b>Aktibo ez-korrontea, guztira</b>	<b>0</b>
Zordunak	93.753
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	83.776
<b>Aktibo korrontea, guztira</b>	<b>177.529</b>
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>177.529</b>

## Pasiboa

Deskribapena	2014ko ekitaldia
Kapital soziala	3.300
Erreserbak	26.555
Galerak eta irabaziak, 2014-12-31n	12.247
<b>Ondare garbia, guztira</b>	<b>42.102</b>
Epe luzera eraturako fidantzak	170
<b>Pasibo ez-korrontea, guztira</b>	<b>170</b>
Zerbitzuak erostearen edo ematearen ondoriozko zorrak	38.992
Ogasun publikoa hartzekodun, BEZa eta PFEZa direla eta	54.898
Ogasun publikoa hartzekodun, sozietateen gaineko zerga dela eta	0
Gizarte segurantzaren erakundeak	45.488
Langileak	3.460
Epe laburreko hornikuntza	15.365
Ordainketen aldizkako ordainketak	7.053
<b>Pasibo ez-korrontea, guztira</b>	<b>135.257</b>
<b>Pasiboa, guztira</b>	<b>177.529</b>

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean  
Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas.

**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK**

Berriozarren, 2016ko martxoaren 17an

Berriozarko Udalaren 2014ko kontu orokorrari buruzko behin-behineko fiskalizazio-txostenari erantzunez, honako alegazioak egin nahi dizkizut, zeinak, nire ustez, baliagarri gerta baitaitezke bertan azterzen diren gaietako batzuetan arrazoiak edo azalpenak emateko.

1. alegazioa:

Txostenaren sarrera-atalean, Udalak ematen dituen zerbitzu publikoei dagokienez, egiaztatzen da entitateak ematen dituen zerbitzu publikoetan huts ugari daudela. Besteak beste, honakoak ez dira aipatzen:

- Udaltzaingoa
- Bide garbiketa
- Mendialdea 1 eta 2 eskualderako haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeetako eraikinaren atezaintza eta mantentzea.
- Kultur jardueren sustapena
- Euskarazko jardueren sustapena
- Generoko berdintasuna sustatzea eta tratu txarren biktima diren emakumeentzako laguntza juridiko eta psikologikoa.
- Gazteentzako jardueren sustapena.

2. alegazioa:

IV.2 atalaren azken lerrokadan. Udalaren 2014ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko-finantzarioa.

Azken batean, honako hauek dira Udalaren ezaugarriak: aurrezki garbi positiboa du, eta zorpetze ahalmena; Udalaren gastu orokorretarako diruzaintza gerakina 1,3 milioi eurokoa da; guztira 3.651.895 euroko diruzaintza-gerakina dauka; gastu arruntak beheratu ditu, nahiz eta azken bi urte hauetan bere gastu-beharrizanak diruzaintza-gerakina aplikatuz finantzatzen duen.

Adeitasunez,

Alkatea: Raúl Maiza González

**AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA**

Berriozarko Udaleko alkateak aurkeztutako alegazioak aztertuta, txostenean erantsi ditugu, uste baitugu ez diotela haren edukiarri eragiten, eta txostena behin betikotzat jo dugu.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

